AURKIBIDEA

Abendualdiko kandelak pizteko lagungarria 4

Azaroaren 29an, ABENDUALDIKO I. IGANDEA 7

Abenduaren 6an, ABENDUALDIKO II. IGANDEA 15

Abenduaren 8an, MARIA BIRJINAREN SORTZE GARBIA 22

Abenduaren 13an, ABENDUALDIKO III. IGANDEA 30


Abenduaren 20an, ABENDUALDIKO IV. IGANDEA 37

SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN 45

ADISKIDETZE SAKRAMENTUA 47

Kantua: «ABENDUAREN KANDELAK»

Doinua: Etxahun Iruri / Hitzak: Unai Manterola Albizu



1. Abenduko lehen argian / Itun Zaharra da giltza,
antzinatik iragartzen du / Salbamenaren Hitza.
Profeta zaharren itxaropenez / barne-pozez gabiltza,
zori pozgarria dakigun / Erreinuko bizitza.

2. Argi honek indarra du / sugarraren oihartzun,
   Bataiatzailea mintzo da: / “Datorrenari entzun”.
   Salbatzailea gertatzen zaigu / promesaren erantzun,
   bide prestatzea lokarri / ta bakea eraztun.

3. Hiru kandelek digute / barne-gogoa poztu,
   Andre Mariak erraietan / Jesu Kristo du sortu.
   /hintza bezala, gozotasunez, / Jainkoa zaigu lotu,
   gure barnean salbamena / badaiteke ehotu.

4. Laugarrengo su-argia / bizigarri ez al da?,
   igo dugu dagoeneko / Abenduaren malda.
   Maitasun eta itxaropenez / munduaren eztanda...
   Dena berri gerta daiteke / garen oro emanda.



ABENDUKO KANDELAK PIZTEA

Aurreko orrialdean dator kantu bat, Abenduko kandelak piztean kanta daitekeena. 1. igandean, agurraren eta oharpenaren ondoren «0» bertsoa kanta daiteke, ondoren koroaren bedeinkapena egin, eta lehenengo kandela piztean «1» bertsoa. Beste igandeetan, igandeari dagokion bertsoa bakarrik.

Hona, lehenengo igandean bedeinkapena egiteko otoitza:

Astero, Abenduko kandelak piztean Eguberriaren argia jasotzeko prestatzen ari garela adieraziko dugu. Gaur, bedeinkapen otoitza egitera goaz aurreneko argia pizterako.

(Apaizak edota diakonoak besoak zabalik egiten dute otoitza; Hitzaren ospakizunean laikoak egin dezake otoitza, besoak zabaldu gabe).

Egin dezagun otoitz.

Jauna, egun hauetan lurra alaitzen da
eta Eliza pozez betetzen,
ilunpetan, ezjakinean, atsekabean
eta bekatuan dauden gizakiengana baitator
argi amaigabea den zure Semea.
Jesus datorrela jakiteak sortu dion itxaropenez
koroa hau (enbor hau) prestatu du zure herriak
eta kandelaz apaindu.
Zure Semearen etorrerarako prestaera-garaia hastean
eskatzen dizugu, Jauna,
bere distira argi berriz areagotuz doan bezala,
gu ere argi gaitzazula munduaren argia den
eta ilunpe guztiak argitzen dituen Jesusen argiarekin
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.
℟. Amen.

Azaroaren 29an

ABENDUALDIKO I. IGANDEA (B)

Agurra

Bakezko bizitzara dei egiten digun Jainkoa izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Senideok: Urtean zeharreko igandeen zerrenda luzea amaitu ondoren, liturgi-urte berriari ekiten diogu gaur.

Abendu-aldiarekin hasten dugu urte berria; eta prestaketa giroan hasi ere. Giro hori adierazten digute apaizaren jantzi moreek. Jaunaren Azken-etorrera nagusia eta Eguberrietakoa ospatzeko prestatzera goaz; Bakearen errege den Kristori bideak eta bihotzak prestatu nahi dizki-ogu, Berak gu bakearen zerbitzari eta sortzaile bihur gaitzan, Berak gure bidez gizarteari bake betea eskain diezaion.

Abendualdiko argia piztea *(Kantua, liburuxka honetan,4-5 orrialdeetan)*

Damu-otoitza *(Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza)*

Bizia hurbiltzen ari zaigunean, ezin, bada, zoritxarreko egin gaituenari leku egin. Eska diezaiogun barkamena Jaunari.

—Jesus Jauna, gure **ba**kea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gurutzearen bidea gizakiak Jainkoarekin ba**ke**tu dituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zure etorreraz bakearen berria **e**karri diguna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
emaguzu zeure fededunoi Abendualdia hastean,
gugana datorren Kristoren bidera
egintza onez beterik ateratzeko gogoa,
azken egunean bera aintzaz etortzean,
haren eskuinaldean jarririk,
zeruko erreinua irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Profetaren otoitz sutsu bat dugu gaurko lehenengo irakurgaia: herriaren erdian ager dadila eskatzen dio Jainkoari. Geuk ere otoitz egingo dugu irakurlearekin batera: Jainkoaren ikustaldia edo bisitaren beharra sumatzen baitugu guk ere. Bigarren irakurgaiak, berri, esker-otoitz bihurtuko du gutuna.

Lehenengo irakurgaia (*Is* 63, 16b-17. 19b; 64, 2b-7)

Isaias profetaren liburutik

Zu zara, Jauna, gure aita,
«gure Erosle» duzu izena betidanik.
Zergatik utzi diguzu, Jauna, zeure bideetatik alde egiten,
zure begirunerik ez izateraino gure bihotzak gogortzen?
Itzul zakizkigu, zeure zerbitzariengatik,
zeure ondare aukeratu dituzun leinuengatik.

Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina!
Zure aurrean mendiak urtuko lirateke.
Jaitsi zinen, eta mendiak urtu egin ziren zure aurrean.

Inoiz ez du ez belarrik aditu, ez begik ikusi,
Zu beste Jainkorik
beragan itxaro dutenen alde horrela jokatzen duenik.
Zeu ateratzen zara,
pozik eta zuzen dabiltzanen
eta zure bideak gogoan dituztenen bila.

Haserre zeunden, bai, bekatu egin genuelako,
aspaldidanik bekatari garelako,
baina salbatuko gara.
Guztiok kutsatuak geunden,
gure egintza onak ere zapi zikinen antzeko ziren;
orbelaren antzera ihartzen ginen guztiok,
eta gure bekatuek haizeak bezala eramaten gintuzten.

Ez zion inork zure izenari dei egiten,
ez zen ahalegintzen inor Zurekin bat egiten,
zeure aurpegia gorde egin baitzenuen gugandik,
eta geure erruetan murgilduak utzi gintuzun.
Hala ere, Jauna, Zu zara gure aita;
gu buztina, eta Zu gure buztinlaria:
zure eskuetako lana gara guztiok.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 1, 3-9)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

Jainkoari eskerrak ematen ari natzaio beti zuengatik, zuei Jesu Kristogan Jainkoak eman dizuen graziagatik. Izan ere, Kristogan aberastu zaituzte dohain guztietan: bai hitzean eta bai jakintzan, Kristoz egiten dugun aitormena zuengan sendotu denez gero.

Horrela, ez duzue dohainik batere falta Jesu Kristo gure Jaunaren agerraldiaren zain zaudetenok. Hark indartuko zaituzte azkena arte, inork zuen aurka zeresanik izan ez dezan Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera-egunean. Zintzoa da bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkarturik bizitzera deitu zaituzten Jainkoa.

Ebanjelioa (*Mk* 13, 33-37)

Homiliarako argibideak

Kristo gure bidera

Abendualdian, Kristoren etorrera gogoratzen eta ospatzen dugu. Baina Kristo ez da iraganeko pertsonaia bat, edo Gabonetako jaietan bakarrik agertzen den norbait. Gure bidera dator gaur ere, gure bizitzako egoera eta une guztietan. Gure etxeetara dator, gure lanera, gure harreman eta kezketara; pozaren eta tristuraren erdira, osasunaren eta gaixotasunaren garaira, bakardadearen eta adiskidetasunaren uneetara.

Oraindik tentatzen gaituen sinesmolde bat dugu gainean: Jauna etorriko dela, baina gauza handietan, aparteko gertakari edo gure arazoen berehalako konponbidean. Baina Jauna sarritan isilean eta apaltasunez dator. Beste pertsona baten hitz baten bidez, norbaitek luzatutako esku baten bidez, barkamena eskatzeko edo emateko sortzen zaigun gogoaren bidez. Behartsu baten aurpegian ere aurki dezakegu, gure denbora behar duen senidearengan, edo entzuna izatea espero duen lagunarengan.

Kristori gure bidera etortzen uzteko, prestatu egin behar dugu bihotza. Batzuetan, barruan pilatzen ditugu haserreak, etsipenak eta aurreiritziak; beste batzuetan, presak eta kezkek ez digute uzten bestea ikusten. Abendualdia aukera dugu bidean oztopo horiek kentzeko. Berriro has gaitezke, barkamena eskatuz, elkarrizketa bati ekinez, norbait hartuz edo gure inguruan dagoenari arreta eskainiz.

Galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: zer ate ireki nahi dizkiot Jaunari?

Erne egon gaitezen

Jesusen «Zaudete erne!» esaldia behin eta berriz agertzen da gaurko Ebanjelioan. Erne egotea ez da denbora guztian zerbait txarraren beldurrez bizitzea, ezta Jaunaren etorreraren data asmatzen saiatzea ere. Erne egotea bihotza esna edukitzea da: Jainkoaren ahotsa entzun, inguruko pertsonak ikusi eta gure ardurei leial heltzea.

Lozorroan bizi gaitezke, begiak zabalik izan arren. Eguneroko errutinak harrapatzen gaituenean, besteengan gertatzen dena oharkabean pasatzen zaigu. Gure kezka eta nahiak bakarrik hartzen ditugunean kontuan, ez dugu ikusten laguntza behar duenik. Ebanjelioaren deia, beraz, gure begirada berritzera dator: geldi gaitezen, entzun dezagun eta galde diezaiogun geure buruari ea nola ari garen bizitzen.

Erne dagoen pertsonak ez du dena bakarrik bere gain hartzen, baina bere egitekoari leial eusten dio. Etxeko nagusiak zerbitzariei bakoitzari bere egitekoa utzi zien; guretzat ere bada ardura bat. Gurasoek, seme-alabek, langileek, zaintzaileek, elkarteko kideek eta herritarrek badute egunero egiteko bat. Egiteko hori ez da beti handia edo nabarmena izango. Sarritan, eguneroko maitasunezko keinu txikietan gauzatzen da: pazientziaz erantzutean, hitza betetzean, norbait bakarrik ez uztean, lanean zintzo aritzean edo zuzena denaren alde egitean.

Etorriko da Jauna


Jesusek ez digu esaten noiz etorriko den etxeko nagusia. Ez digu egutegian data jakin bat markatzeko eskatzen, ezta etorkizuna kontrolatzeko ere. Konfiantzaz bizitzera gonbidatzen gaitu. Etorriko da Jauna, eta haren hitzak gure itxaropenaren oinarri dira. Jainkoak ez du bere herria ahazten, ezta gure bidea uzten ere.

Jaunaren etorrerak etorkizunari begiratzen laguntzen digu, baina ez gaitu gaurko bizitzatik aldentzen. Aitzitik, gaurko eguna modu osoagoan bizitzera bultzatzen gaitu. Jauna etorriko dela sinesteak esan nahi du gure ahaleginak ez direla alferrikakoak; maitasunez egindako lanak, barkamenak, justiziaren aldeko urratsek eta itxaropenak badutela balioa. Gure inguruan dena berehala aldatzen ez denean ere, Jainkoak hazten jarraitzen du, askotan ikusten ez ditugun moduetan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, Bakezko bizitzara eta erne egotera dei egiten digun Jainkoari egin diezaiogun otoitz, Kristo Jauna bitarteko:

Erantzuna: ℟. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



— Elizaren alde: gizarteko poz eta atsekabeetan, arazo eta lorpenetan, murgilduta bizi dadin; eta horrela itxaropen-emaile izan dadin. Egigun otoitz. ℟.

— Jesusen ikasleen alde: beren gogo-bihotzak ebanjelioaren argitan berrituz, bakezko gizon-emakume izan daitezen. Egigun otoitz. ℟.

— Kristau elkartean osatzen dugunon alde: Jesus Jaunaren egiazko elkarte izaten jarraitzeko, eraberritze bideak elkarrekin hausnartu ditzagun Ebanjelioaren eta munduaren argitan. Egigun otoitz. ℟.

— Igandea ospatzeko, eukaristia batzar honetara bildu garenon alde: geure bake den Kristoren Hitza entzuteak, eta haren Gorputza jateak bat egin gaitzala. Egigun otoitz. ℟.

Jauna, Zuk esana da, bakegileak zure seme-alaba deituak izango direla; egizu, etengabe lan egin dezagula, egiazko bake sendoa dakarren zuzentasuna gure artean nagusi izan dadin. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;
egizu, ogi-ardo hauekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dugun Eukaristia
zure erospenaren betiereko sari gerta dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 3. *(Meza-liburua: 470. or.)*

Jaunartze ondorengo otoitza

On egin diezagula, Jauna,
orain ospatu dugun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza iheskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maita ditzagula
eta horietan jar dezagula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. ℟. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue
eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:
Jainko ahalguztidun errukitsuak,
haren etorreraren argiaz,
santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenaz bete. ℟.Amen.

Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak
fedean sendo,
itxaropenean alai
eta maitasunean eginkor. ℟.Amen.

Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz
pozten zaretenoi,
gero, berriro aintzaz etorriko denean,
eman diezazuela betiereko biziaren saria. ℟.Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ℟.Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ℟.Eskerrak Jainkoa

Abenduaren 6an

ABENDUALDIKO II. IGANDEA (B)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Senideok: Abenduko bigarren igande honetan, Joan Bataiatzailea jartzen digu liturgiak eredutzat: Hark Jaunaren etorrera onartu eta prestatu zuen bezala, guk ere gaurko bideak antola diezazkiogun. Aurreko astean egin ditugun urratsei bultzada bat eman diezaiegun.

Abendualdiko argia piztea *(Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan)*

Damu-otoitza *(Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza)*

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, gure bekatu guztien barkamen-i**tu**rria zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztiok bihotz berritu gai**te**zen nahi duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaz bata**ia**tu gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna eta errukitsua,
lur honetako gauzen ardura ez dezagula eragozpen izan
zure Semeari bidera gogotsu irteteko;
eta eraman gaitzazu, jainkozko jakinduriaren irakaspenez,
zeure Semearekin bat egitera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Kontsolamendua eman eta itxaropena pizten diguten hitzak entzutera goaz. Jainkoak, Artzainik onenaren moduan gidatu nahi gaitu. Bere salbamen indarra gugana irits dadin, ordea, bidea zabaldu behar diogu. Zabal diezaiogun bihotza Jainkoari.

Lehenengo irakurgaia (*Is* 40, 1-5. 9-11)

Isaias Profetaren liburutik

«Kontsola ezazue, kontsolatu nire herria, dio Jainkoak.
Mintza bihotzera Jerusalemi, egiozue oihu:
betea duela bere morroialdia, ordaindua bere erruen zorra,
Jaunaren eskutik hartua baitu bere bekatu guztien ordain betea».

Mintzo bat ari da oihuka:
«Prestatu basamortuan bidea Jaunari;
zelaitu eremuan galtzada gure Jainkoari.
Bete daitezela haranak, beheratu mendi eta muinoak;
berdin daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak.
Orduan Jaunaren aintza agertuko da,
eta gizaki guztiek batera ikusiko dute
–Jaunak berak esan du–».

Igo mendi-gailurrera, Siongo mezularia;
egin deiadar handi, Jerusalemgo mezularia;
egin deiadar, ez beldur izan.

Esan Judako hiriei:
«Hona hemen zuen Jainkoa.
Hara, indarrez jantzia dator Jainko Jauna,
eta haren besoa nagusi da.
Hara, berekin dakar garaipen-agiria
eta bere aurretik berak askaturiko herria.
Artzainak bezala zaintzen du artaldea;
arkumeak besoan hartu eta altzoan eramaten ditu,
ardi-ama berriak arduraz gidatzen».

Bigarren irakurgaia (*2 P* 3, 8-14)

San Pedro Apostoluaren bigarren gutunetik

Senide maiteok: Ez zaizue hau ahaztu behar: Jaunarentzat egun bat mila urte bezala dela, eta mila urte egun bat bezala. Jauna ez da berankorra agintzaria betetzen, batzuek hala uste badute ere; baizik eta pazientzia du zuekin, ez baitu inor galtzea nahi, guztiok bihotz-berritzea baizik. Jaunaren eguna, ordea, lapurra bezala ustekabean etorriko da. Orduan, burrunba handiz desagertuko dira zeruak, lurraren osagaiak kiskalirik ezereztuko dira, eta lurra eta bertako gauza guztiak agerian geldituko.

Gauza hauek guztiak honela ezereztu beharrekoak direnez gero, begira zein santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak!

Bizi zaitezte, beraz, Jainkoa etorriko den egunaren zain eta egin lan, lehenbailehen hel dadin. Egun hartan, sutan desegingo dira zeruak, eta lurraren osagaiak kiskalirik ezereztuko. Guk, ordea,

Jaunak agindu bezala, zuzentasunaren bizileku diren zeru berriak eta lur berria itxaroten ditugu.

Beraz, ene maiteok, hauek itxaroten dituzuela, ahalegin zaitezte Jainkoarekin bakean bizitzen, garbi eta errurik gabe haren aurrean.

Ebanjelioa (*Mk* 1, 1-8)

Homiliarako argibideak

Markosen Ebanjelioa berri on batekin hasten da: «Mesias eta Jainkoaren Seme den Jesusen Berri Onaren hasiera». Hasiera hitzak itxaropena pizten digu eta, esperantza honen ezaugarri apal bezain esanguratsua, bigarren kandela piztu dugu.

Jainkoa berriro hasten da gurekin, eta Abendualdia bide hori prestatzeko garaia da: bihotza esnatu, begiak ireki eta Jaunaren etorrera espero.

Prestatu bidea Jaunari

Basamortuan, ahots batek oihu egiten du: «Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari». Gure bizitzan ere badira Jaunari pasatzen uzten ez dioten bide-bihurguneak: presak, axolagabekeriak, haserreak, besteen beharrak ez ikustea.

Abendualdiak ez digu eskatzen dena perfektu egitea; lehen urrats bat ematea baizik. Agian, norbaiti barkatzea, denbora gehiago eskaintzea, otoitzean isiltzea edo bakarrik dagoenari hurbiltzea. Horrela prestatzen diogu bidea Jaunari: gure egunerokoan lekua eginez.

Joanek irekitako bidea

Joan Bataiatzailea ez da bere burua aldarrikatzera etorri. Basamortuan bizi da, xume, eta Jesusengana bideratzen ditu pertsonak. Bere mezua argia da: bihotz berritu eta bataioaren bidez

Jainkoaren barkamena hartu. Joanek irekitako bideak erakusten digu fedea ez dela gure burua erdigunean jartzea, Jesusen etorrerari tokia egitea baizik.

«Nire ondoren dator ni baino ahaltsuagoa dena», dio. Joanek badaki nor den bere egitekoa: bidea prestatzea. Guk ere, gure hitzez eta ekintzez, besteak Jesusengana hurbil ditzakegu, apaltasunez eta itxaropenez.

Ez gara gu eta gure ingurunea mundu honetako erdigunea bakarrik. Gabonak prestatzen ari gara eta datorrena Jauna da. Gure inguruan bakarrik eraikitako bideak alferrikakoak dira gure buruari begira bakarrik bizi bagara.

Jauna erdigunean jartzean, berak maite zituenak, bere kuttunak elkartearen erdigunean jartzen ditugu eta gu, apaltasun handienaz, erditik ateratzen gara.

Egungo profetei entzun

Joanek basamortutik hitz egin zuen, eta jendeak entzun egin zion. Gaur ere Jainkoak profeten bidez hitz egiten digu: behartsuen oihuaren bidez, bakearen alde ari direnen bidez, zaintza eta justizia eskatzen dituztenen bidez, eta gure inguruan isilean laguntzen dutenen bidez.


Baina entzutea ez da hitzak jasotzea bakarrik; haien mezua gure bizitzan gauzatzeko prest egotea da. Abendualdi honetan, egin dezagun isiltasunean galdera hau: noren ahotsa ari naiz entzuten, eta zein bide ari zait Jainkoak zuzentzeko eskatzen?

«Prestatu Jaunari bidea» ez da urruneko dei bat. Gaur bertantxe hasten da, gure etxean, gure harremanetan eta gure herrian. Jauna badator; ireki diezaiogun bidea, eta lagundu diezaiogun besteei haren berri ona aurkitzen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Atera gaitezen bakez datorkigun Jaunaren bidera eta egin diezaiogun otoitz:

Erantzuna: ℟. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



— Eliza poz handiz bizi dadin beti, eta itxaropen osoz sinets dezan Jauna gertu duela. Egigun otoitz. ℟.

— Egiazko bakez bizi gaitezen, errukiaren, barkamenaren eta adiskidetzearen bidetik. Egigun otoitz. ℟.

— Jaunak, Bere etorreraz, bihotz hautsiak sendo ditzan eta belaun makurtuak sendotu. Egigun otoitz. ℟.

— Jainkoaren promesak fede beroz sinets ditzagun eta Beraren laguntzaz hitz emandakoak onartzeko prest ager gaitezen. Egigun otoitz. ℟.

Gure atsegin zaren Jainko eta errukizko Aita, Zuk agindu diezu mundu honetan erromes diren gizakiei zeru berria eta lur berria; entzun gure otoitzak eta mintza zakizkio bihotzera Zure herriari, garbi eta leial itxaron dezagun Zure Semearen agerpena. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Bigun zaitzatela, Jauna, gure otoitz eta eskaintza apal hauek,
eta, geure aldetik merezimendurik ez dugunez gero,
lagun diezagula zure errukiak dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 1. *(Meza-liburua: 466. or.)*

Jaunartze ondorengo otoitza

Eukaristiako espiritu-janari honek aserik,
otoitz egiten dizugu, Jauna:
erakuts iezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zeruko ondasunak maitatzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen Nagusia *(Liburuxka honetan: 14. or.)*

Abenduaren 8an

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA

Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako Elizbarrutietan Seminarioaren eguna

Agurra

Mariaren erraietan gizon egin zen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Abendua Andre Mariaren hila da. Bera da itxaroten dakiena, bera da "Itun Berriaren Kutxa" Jaunak garbi eta eder prestatua. Berari begira ikasten dugu Eguzki berria onartzeko bidea egiten.

Gaur gainera Seminarioaren eguna dugu. Hauxe dugu goiburua: *«Utzi sareak eta jarraitu niri»*. Gure apaizgaiak, Kristo bezala artzain onak izatea nahi dugu eta artzain misiolariak gainera, irteten den eliza izanez, bidean jarri, Berri Ona toki eta egoera guztietara eramango dutenak. Otoitz egingo dugu guztien alde eta beraien heziketarako izango da gure diru-bilketa.

Ospa dezagun pozik Amaren jaia. Jainkoa goretsiz eta eskerrak emanez. Horrek lagunduko digu Eguberria prestatzen.

Damu-otoitza

Presta gaitezen Eukaristiarako, gure bekatuen barkamena eskatuz.

—Jesus Jauna, zeure herria salbatzeko Maria Birjinagan gizon egin zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gizadiaren itxaropen guztiak betetzera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure Ama bekatutik garbi eta graziaz betea egin zenuena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Aintza zeruetan

Andre Mariarekin eta santuekin bat eginik eta Eliza osoarekin batera gores dezagun Jainkoa Aintza zeruetan [esanez] kantatuz.

Otoitza

Oi Jainko,
egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari
Maria Birjinaren Sortze Garbiaz
eta, honen Semearen heriotza aurreikusirik,
garbi gorde zenuen bekatu guztitik Ama;
egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,
gu ere Zugana garbi irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Testigu alaiak izateko deia egiten zaigu. Erantzun dezagula Mariak bezala: «Hona hemen ni, Jauna, gerta bedi nigan zure nahia».

Lehenengo irakurgaia (*Has* 3, 9-15. 20)

Hasiera liburutik

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako».

Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Bigarren irakurgaia (*Ef* 1, 3-6. 11-12)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez.

Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Ebanjelioa (*Lk* 1, 26-38)

Homiliarako argibideak

Gaurko festaburu handi eta argitsu honetan, Maria Birjinaren Sortze Garbia ospatzera bildu gara; hau da, Jainkoak gure giza historian egindako maisulan eta dohain miragarriena gogoratzera. Maria bere bizitzaren lehen unetik bertatik pekatutik aske eta graziaz gainezka gorde zuen Jainko Aitak.

Ebanjelioan entzun berri dugun Nazareteko pasarteak —Aingeruaren agur bereziak, Mariaren harridurak eta azken erantzun apalak— argi izpi handi bat zabaltzen dute gure eguneroko bizitzan eta gure elkarbizitzan.

Mariarekin pozten den herria

Aingeruak "Poztu zaitez, graziaz bete hori!" esaten dionean, ez dio soilik Nazareteko neskatxa bati hitz egiten, baizik eta gizateria osoaren bihotza eta itxaropenak hunkitzen ditu. Elizak eta gure Euskal Herriko kristauek mendez mende maitasun, kantu eta debozio berezia izan dio Maria Sortze Garbiari. Gaur ere, elkarte bezala biltzean, pozik eta esker on handiz betetzen gara.

Zergatik da hain handia gure poza? Gure artean eta gure giza izaeran badelako Jainkoaren argitasunez eta garbitasunez guztiz betea izan den izaki bat; Maria gure herriaren historian itxaropenaren atea zabaldu zuen egunsenti distiratsua delako. Mariarekin poztea ez da gertaera historiko bat gogoratzea soilik; gure Amaren handitasunaz, bere babes gozoaz eta Jainkoak bere bidez egin dituen miratiez jabetzea eta elkarrekin ospatzea baizik.

Jauna gurekin dago

Aingeruak Mariaren barruko urduritasuna ikusirik esaten dion esaldirik garrantzitsuena, ziur aski, hauxe da: "Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu."

Sortze Garbiaren misterioak zera adierazten digu: Jainkoa ez dagoela zeru urrun batean guregandik bereizita, ez dela gure oinaze, neke eta ahultasunetatik kanpo bizi. Gure zauri eta pekatuen gainetik, Jainkoa gurekin dagoela da misterio honen muina; gure errealitaterik ilunena ere bere argiaz garbitzeko eta salbatzeko gai dela. Mariaren garbitasuna ez da guregandik urruntzen duen distantzia morala, Jainkoaren presentzia bero, hurbil eta biziaren isla baizik. Jauna gure artean bizi da, eta Mariaren bidez gure etxeko eta bihotzeko ateak jotzen ditu.

Kristogan aukeratuak izan gara

San Paulok Efesoarrei idatzitako gutunean gogorarazten digun bezala, Jainkoak “munduaren sorrera baino lehen aukeratu gintuen bere aurrean santu eta akats gabeak izan gaitezen, maitasunez”. Hortaz, Sortze Garbia ez da Mariaren ezohiko pribilegio bakarti bat, baizik eta gizateria berri baten hasiera eta ataria. Jainkoak Mariari berezko graziaz egin diona, guretzako ere ametsa, dohain eta deia da: denok gara deituak eta aukeratuak Jainkoaren maitasun atseginean bizitzeko.


Bere graziaren bidez, gure bihotzeko ilunpe eta zirrikitu guztiak garbitu nahi ditu, gu ere Salbatzailearen bizileku eta lekuko bihurtzeko.

Festa handia da gaur ospatzen duguna eta Abendualdiko igandeotan tarte handia egiten diogu Maria Birjinari. Lagun gaitzala gure bizitzako beldurrak eta zalantzak baztertzen, Jainkoaren presentzia bizia gure barruan sentitzen, eta gure gizartean, anai-arreben artean, maitasunaren, bakearen eta garbitasunaren lekuko alaiak izaten.

Jainkoaren herriaren otoitza

Andre Mariarengan gizakien salbamena hasi zuen Jainkoari, eska diezaiogun Jaunaren bidera ateratzeko indarra eta laguntza:

Erantzuna: ℟. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



— Salbamenaren betea Mariarengan aurreikusi zuen Jaunak, lagun diezagula Elizako kide guztioi Kristoren Amaren edertasuna islatzen. Egigun otoitz. ℟.

— Andre Mariarengan Salbatzailea ernearazi zuen Espiritu Santuak berak mundua bete dezan eta gizaki guztiengan Jainkoaren Erreinuarekiko gogo beroa sorrarazi dezan. Egigun otoitz. ℟.

— Gure apaizgaiek jaso dezaten kristau-elkarteen harrera eta beroa eta Andre Mariaren antzera Jainkoaren aurrean lanerako prest agertuko diren apaiz bokaziodunak gure artean falta ez daitezen. Egigun otoitz. ℟.

— Andre Mariari begira, berak bezala Kristo onartzeko prestatu gaitezen eta Haren jaiotzako jaiak bihotzez ospa ditzagun. Egigun otoitz. ℟.

Jainko gure Jauna, Andre Mariaren sortze garbian salbamenaren egunsentiak argi egin dezan nahi izan duzu; entzun gure otoitzak eta egizu Elizaren ekintzaz eta testigantzaz gizaki guztiek ezagutu dezatela zugandik datorkigula salbamen betea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (Diru-bilketa egiterakoan)

Gaurko diru-bilketa gure Seminarioari laguntzeko izango da. Gure apaizgaiak ongi presta daitezen lagunduko dugu, baita bokazio pastoraltzak harrera ona egiten jarrai dezan ere.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, Maria Birjina dohatsuaren
Sortze Garbiaren festaburua ospatzean
eskaintzen dizugun opari salbagarria;
eta hura, aurretiaz hartutako zure graziari esker,
erru guztitik libre izan zela aitortzen dugun bezala,
libra gaitzazu gu ere, haren otoitzaren laguntzaz,
bekatu guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa: Sortzez Garbiarena *(Meza-liburua: 917. or.)*

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren sortzea
jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen miragarriro;
hartu dugun sakramentu honek senda ditzala gugan
bekatu horren zauriak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. ℟. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Maria Birjina dohatsuagandik jaiotakoaren bitartez
gizadia bihotz onez salbatu duen Jainkoak
eman diezazuela oparo bere bedeinkapena. ℟. Amen.

Bizi-iturria eman dizuen Mariaren laguntza
izan dezazuela nonahi eta beti. ℟. Amen.

Eta Mariaren jaia santuki ospatzera etorri zaretenoi
eman diezazuela Jainkoak
Espirituaren poza eta zeruko sariaren dohaina. ℟. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ℟. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ℟. Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 13an

ABENDUALDIKO III. IGANDEA (B)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Gaurko liturgian hiru testiguk laguntzen digute Jaunarenganako bidean: Isaias eta Paulo pozaren testigu ditugu; Joan Bataiatzailea argiaren testigu. Jesus dugu egiazko poza eta egiazko argia. Berari begira jartzen gaituzte haren testiguek; eta Jesusi begiratuta gu geu testigu izatera deituak gara.

Senti dezagula gure burua aukeratuen taldeko: mundu guztiari jakinaraziz Jaunak zoriontsu izatera deitzen gaituela, eta bihotz berriz ekin behar diogula bide horri

Abendualdiko argia piztea *(Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan)*

Damu-otoitza *(Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza)*

Senideok: Jaunaren etorreraren gertutasuna haren errukia gozatzeko aukera da. Eska diezaiogun apaltasunez gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, zure herriari bakea ekartzera **e**torri zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, galdurik zegoena salbatzera **e**torri zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua berri egitera **e**torri zinena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, ikusten duzu zeure herria,
Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten;
egizu, arren,
irits gaitezela salbamen miragarriaren zorionera
eta gorapen eta pozik handienaz ospa dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Profetaren hitzak Jesusengan betetzen dira: Bera da Espirituak gantzutua: Jaunaren errukia eta osasuna, grazia eta askatasuna dakartzana. Joan Bataiatzaileak prestatzen digu Haren bidea: argiaren testigua da bera, baina argi hori ez dute denek ikusten.

Lehenengo irakurgaia (*Is* 61, 1-2a. 10-11)

Isaias Profetaren liburutik

Jainko Jaunaren espiritua nire gainean dago,
Jaunak gantzutu bainau.
Hark bidali nau behartsuei berri ona ematera,
bihotz-urratuak sendatzera,
gatibuei amnistia hots egitera eta giltzapetuei askatasuna;
Jaunaren onginahi-urtea hots egitera.

Pozaren pozez nago Jaunarekin,
neure arima Jainkoarekin alai daukat,
salbamenaz jantzi bainau,
garaipen-soinekoz estali,

koroa janzten duen senargaia bezala,
edergailuz apaintzen den andregaia bezala.

Lurrak landarea ematen
eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala,
hala ernearaziko du Jaunak justizia eta gorespena
nazio guztien aurrean.

Bigarren irakurgaia (*1 Ts* 5, 16-24)

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe; eman eskerrak beti, horixe nahi baitu zuentzat Jainkoak Kristo Jesusengan. Ez itzali Espiritua, ez gutxietsi profeta-dohainik. Aztertu guztia eta hartu on dena. Zaindu zeuen buruak nolanahiko gaiztakeriatik.

Bakea ematen duen Jainkoak berak egin zaitzatela oso-osorik santu, eta zuen izate osoak –espiritu, arima eta gorputz– errugabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera arte. Leiala da dei egin dizuena, eta beteko du emandako hitza.

Ebanjelioa (*Mt* 11, 2-11)

Homiliarako argibideak

Poztu gaitezen

Abendualdiko hirugarren igandea pozaren igandea da, "Gaudete". Liturgiak dei egiten digu: «Poztu zaitezte beti Jaunagan». Baina poza ez da beti barre egitea, ezta arazoak desagertu direla sinestea ere. Batzuetan, gure inguruan eta gure barruan gauzak ez doaz nahi bezala: badira kezka, gaixotasuna, bakardadea eta etorkizunari buruzko zalantza. Hala ere, kristauaren poza ez dago egoera guztiak kontrolpean izatearen mende. Beste iturri batetik dator: Jauna hurbil dago, eta ez gaitu bakarrik uzten.

Joan Bataiatzaileari buruzko ebanjelioak argiaz hitz egiten digu. «Ez zen hura argia», dio, «argiaren lekuko izatera etorri zen». Joanek bazekien argia ez zela bera, baina bazekien argi haren berri eman behar zuela. Jesus munduko argia da, eta haren argiak iluntasuna ukitzen du: gure beldurrak, gure itxaropen falta eta gure bihotzeko zauriak. Ez ditu beti berehala kenduko, baina gurekin dagoela erakusten digu, eta gure pausoak argitzen ditu.

Jauna hurbil dago, eta bere argiak gure bizitzan lekua har dezake. Abendualdiko pozak ez gaitu mundutik aldentzen; munduari itxaropenez begiratzen laguntzen digu.

Joanek hartzen du hitza

Jerusalemdik bidalitako apaiz eta lebitarrek Joani galdetu zioten: «Nor zara zu?». Joanek erantzun zehatza eman zuen: ez zen Mesias, ez Elias, ezta haiek espero zuten profeta ere. Bere burua «basamortuan oihu egiten duenaren ahotsa» zela esan zuen. Ahotsak mezua zabaltzen du, baina ez da mezua bera; seinalatzen duen argia ere ez da.

Joanen apaltasunak erakusten digu lekukoa izatea zer den. Ez du bere burua handitu nahi, eta ez du jendea bereganatu nahi. Datorrenari bidea errazten dio, bidea prestatzea da bere helburua.

Joanen antzera geuk ere bidea prestatu nahi badugu, gure bihotzean harrizko bihurtu diren gauzei erreparatuz hastea da kontua: aspaldiko haserreari, norbait bazterrean uzteko ohiturari, besteen mina ikusi arren aurrera jarraitzeari. Batzuetan, bidea prestatzea hitz egokia esatea da; beste batzuetan, isilik entzutea, barkamena eskatzea edo laguntza eskaintzea. Keinu txikiak dira, baina horien bidez egiten diogu leku Jaunari eta besteei.

Hau guztia, Betanian bezala, hemen gertatzen da

Ebanjelioak zehazten du galdeketa Jordan bestaldeko Betanian gertatu zela. Ez digu leku baten izena ematen xehetasun hutsagatik. Jainkoaren hitza toki jakin batean entzun zen, pertsona jakin batzuen artean, eguneroko bizitzaren barruan. Betania hartan hasi zen gertatzen Jaunaren etorreraren Berri Ona.

Donostiako Elizbarrutian "Zurekin" lemapean hasi berri dugu ilusioz eta arduraz Sinodo berria.

Betaniakoa ez da guretzat urruneko istorioa. Hemen gertatzen da: gure etxeetan, kalean, lanean, gure elkartean eta bihotzean. Jauna ez dugu soilik etorkizuneko egunen batean aurkituko; gaur ere badator, pertsona zaurgarrien bidez, adiskide baten hitzaren bidez, barkamen-keinu baten bidez edo norbaitek guretzat hartzen duen denboraren bidez.


Gure artean ere badaude Joanen antzera argiaren lekuko diren pertsonak: itxaropena galtzen ari denari adore ematen diotenak, isilean zerbitzatzen dutenak, bakarrik dagoena bisitatzen dutenak, eta baztertuak entzuten dituztenak. Haien bidez, Jesusen argiak distira egiten du. Gu ere izan gaitezke haren lekuko, ez hitz handien bidez bakarrik, eguneroko keinu xumeen bidez ere bai. Beraz, poztu gaitezen: Jauna hurbil dago.

Entzun dezagun Joanen ahotsa, prestatu diezaiogun bidea, eta Betanian bezala, hemen eta orain, egin diezaiogun leku haren argiari.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jauna badatorrela jakiteak poztuta, egin dezagun otoitz senideok, gure askatasuna uste onez itxaro dugula

Erantzuna: ℟. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Mundu honetako indarrekin liluratu gabe, Eliza bizi dadila beti Jainkoaren gidaritzapean. Egigun otoitz. ℟.

—Jainkoaren laguntzaz eta denon ahaleginez, gure garaiak bakezko eta zorionezko egun izan daitezen. Egigun otoitz. ℟.

—Jaunaren etorrerak denon bihotzak mugi ditzan, gaixoen osasuna, bakarrik daudenen laguntasuna eta sufritzen duten guztien atsedena bila ditzagun. Egigun otoitz. ℟.

—Orain Jaunaren lehen etorrera eta gizon egitea zintzo ospatzen dugunok, azken egunean datorrenean ere pozik onar dezagun. Egigun otoitz. ℟.

Jainko Jauna, behartsu eta babesgabeen Aita, gizaki guztiak deitzen dituzu Zure erreinuaren bakera; entzun gure otoitzak, agertu Zure onginahia eta emaguzu bihotz garbi eta eskuzabala Salbatzaileari bidea prestatzeko. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskaintza adierazten duen opari hau,
eta bete ezazu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 2. *(Meza-liburua: 468. or.)*

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure jokaera txarretatik,
eta datozkigun Eguberri-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen Nagusia *(Liburuxka honetan: 14. or.)*

Abenduaren 20an

ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (B)

Caritasen jardunaldi berezia

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Garrantzitsua da Maria Abendualdian. Bera izan zen entzundako hitza barneratzen eta betetzen jakin zuen emakumea. Horrelako testiguek, Jainkoa gizadiaren erdian dagoela gogoratzen digute; Bere erreinua betirako dela; Jainkoaren promesak betetzen ari direla; ezkutuan zegoen guztia Kristogan argitzen eta betetzen ari dela.

Eguberri aurreko igande honetan, urtero bezala Caritas Elizaren erakundeak gogora dakartza behartsuak eta Jardunaldi honen begirada etxerik gabekoengan jarriko dugu. Gogoan izango ditugu otoitzean eta diru-bilketa berezian. Behartsuei harrera ona eginez, Kristo onartzeko prestatzen gara.

Abendualdiko argia piztea *(Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan)*

Damu-otoitza *(Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza)*

Senideok: itxaropen aldian aurrera goaz. Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, ilunpetan bizi direnei argi egitera zatozen **mun**duko argia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eramatera za**to**zen Artzain Ona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, aitaren agintzariak bernen betera eramateko, egun batean itzuliko zaren Jain**ko**aren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia,
eta egizu, aingeruak esanik
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok,
haren nekaldiaren eta gurutzearen bidez,
irits gaitezela piztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren presentzia tenpluko mugak baino zabalagoa da. Gizakia oso-osorik hartzen eta betetzen du. Presta gaitezen Hitzaren bidez presentzia hori geureganatzeko.

Lehenengo irakurgaia (*2 Sm* 7, 1-5. 8b-12. 14a. 16)

Samuel bigarren liburutik

David erregea bere etxean bizitzen jarri eta Jaunak inguruko etsai guztiekiko bakea eman zionean, hau esan zion erregeak Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jainkoaren kutxa, berriz, oihal-etxolan dago».

Natanek erantzun zion erregeari: «Zoaz eta bete zeure asmoa, Jauna zurekin baita».

Baina gau hartan bertan Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: "Hau dio Jaunak: Zuk eraiki

behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Nik atera zintudan larreetatik, artaldeen atzetik, nire herri Israelen buruzagi izan zintezen. Zeurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Nik suntsitu dizkizut aurrean jarri zaizkizun etsai guztiak eta Nik emango dizut lurreko handikiena bezalako izen handia. Leku bat emango diot neure herri Israeli: han landatuko dut, bertan biziko da eta ez du aurrerantzean estualdirik izango. Gaizkileek ez dute zapalduko antzina bezala, neure herriaren gain buruzagiak ipini nituenean bezala. Bakea emango dizut etsai guztiekiko. Jaunak jakinarazten dizu zure jatorritik sortuko diren erregeak emango dizkizula.

Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atseden hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura.

Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti"».

Bigarren irakurgaia (*Erm* 16, 25-27)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Aintza Jainkoari, nik hots egiten dudan Berri Onaren eta Jesu Kristori buruzko nire predikuaren arabera fedean sendo zaitzaketen Jainkoari. Prediku honen bidez, betidanik ezkutuan zeukan misterioa agertu du Jainkoak. Misterio hori orain azaldu da, profeten idazkiek esan bezala, eta, betiereko Jainkoaren erabakiaren arabera, herri guztiei adierazi zaie, Jainkoari fedezko erantzuna eman diezaioten.

Jainko horri, jakintsu bakarrari, aintza Jesu Kristoren bitartez, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Ebanjelioa (*Lk* 1, 26-38)

Homiliarako argibideak

Nazareteko neskatxa

Ebanjelioak herri txiki batera eramaten gaitu: Nazaretera. Han bizi da Maria, neskatxa gaztea, inork ospetsutzat hartuko ez lukeena. Jainkoak, ordea, haren etxea eta haren bihotza aukeratu ditu bere egitasmoa hasteko. Ez da Jerusalemgo tenpluan gertatzen, ezta agintarien jauregian ere; eguneroko bizitza arruntean baizik.

Gabriel aingeruak agur berezia egiten dio: «poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Mariak ez du berehala ulertzen zer esan nahi duen agur horrek, eta nahastu egiten da. Jainkoaren deiak ere hala harrapatzen gaitu batzuetan: ez dugu dena argi ikusten, eta ez dakigu zer ekarriko duen aurrerantzean. Hala ere, aingeruak lasaitzen du: «Ez beldur izan, Maria».

Jainkoak ez du Maria aukeratzen dena dakielako edo dena kontrolatzen duelako. Harekin dagoelako aukeratzen du. Hor dago gure itxaropena ere: Jainkoak ez gaitu aukeratzen onenak edo perfektuak garelako, gugan bere esperantza sortarazten duelako baizik.

Jesus ipiniko diote izena

Aingeruak Mariari esaten dio seme bat izango duela, eta Jesus ipiniko diola izena. Izen horrek bere eginkizuna erakusten digu: Jainkoa salbatzen ari da. Haur horrek Jainkoaren maitasuna ekarriko du mundura; txikitasunean eta ahultasunean etorriko da, gure bizitza barrutik partekatzera.

Egokia da Mariaren galdera hori nola gerta daitekeen. Ez da sinesmenik ezaren galdera; ulertu nahi du, eta Jainkoaren asmoa bere bizitzan nola gauzatuko den jakin. Aingeruak ez dio bide osoa azaltzen. Jainkoaren Espiritua haren gainera etorriko dela esaten dio, eta Jainkoak berak egingo duela agindu duena.

Jesus gure artean jaiotzea ez da iraganeko oroitzapen hutsa. Gaur ere, bere izenak salbazioa eta esperantza ekartzen dizkigu. Gure beldur, neke eta zalantzen erdian, Jainkoak hurbil egon nahi du.

Guk ezin duguna Jainkoak egiten du

Nola ulertu Nazareteko neskatxak Jainkoak beregan jarri duen konfiantza? Eta halere, hortxe Mariaren opari askea:: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala». Ez du etorkizuna kontrolatzen; Jainkoaren hitzari bihotza irekitzen dio. Horrela hasten da Jainkoaren egitasmoa haren bizitzan.


Guk ere baditugu gainditu ezin ditugun egoerak, konponbiderik ikusten ez dugun arazoak eta geure indarrez lortu ezin ditugun aldaketak. Ebanjelioak ez digu esaten dena guk konpondu behar dugunik. Mariaren bidez gogorarazten digu Jainkoak gure mugen barruan jardun dezakeela, eta guk ezinezko ikusten dugun tokian bide berriak ireki.

Abendualdiko azken igande honetan, ireki diezaiogun bihotza Jainkoari, Mariak bezala. Agian ez dugu dena ulertuko, baina haren hitza entzun eta konfiantzaz erantzun dezakegu. Guk ezin duguna Jainkoak egiten du: eta haren maitasuna gure bizitzan jaiotzen uzten badugu, Jesusen izena gure inguruan biziko da.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamena ekar diezagun:

Erantzuna: ℟. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



— Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. ℟.

— Fernando gure gotzainaren alde eta eraberritze giroan Elizbarrutiko Sinodoa denon artean suspertu, eragin eta landu dezagun. Egigun otoitz. ℟.

— Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baizik.

— Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. ℟.

— Caritasek gaur gogoratzen etxebizitzaren eskubidea ez dadila gutxiengoen aukera, duintasunez eta eskuzabaltasunez joka dezagun beharrean aurkitzen direnekin. Egigun otoitz. ℟.

Onginahizko eta errukizko Jainkoa, entzun gure otoitzak eta emaguzu Espiritu Santuaren dohaina, Mariak bezala onar dezagun Zure Semea. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Gogoratu gaurko diru-bilketa gure parrokiako Caritasen beharretarako izango dela. Izan gaitezen eskuzabalak.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez santu egin zuen Espirituak sagara ditzala
zure aldarera ekarri ditugun eskaintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 4. *(Meza-liburua: 471. or.)*

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hau eskatzen dizugu:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaia,
presta gaitezela hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Bedeinkapen Nagusia *(Liburuxka honetan: 15. or.)*

ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN ELKARTEKO OSPAKIZUNA

CELEBRACIÓN COMUNITARIA DEL SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN

CELEBRACIÓN COMUNITARIA
DEL SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN
ADVIENTO – EL SEÑOR VIENE A NUESTRO ENCUENTRO
A la luz del del primer Sínodo Diocesano de la Iglesia
que peregrina en Gipuzkoa: "CONTIGO"

Canto: Ven, Salvador [CLN, 1]

Saludo

¡Dios, Padre del Amor que sale a nuestro encuentro, esté con vosotros!

Monición inicial

Mientras se reúne la comunidad, puede encenderse una vela. Después de un breve silencio, se canta.)

Nos hemos reunido en el camino del Adviento. El Señor viene a nuestro encuentro y quiere encontrarse con nosotros en medio de nuestra vida. Hoy, como comunidad, escucharemos su Palabra y examinaremos nuestro corazón. No venimos movidos por el miedo, sino confiando en la misericordia de Dios. El camino recién iniciado del Sínodo Diocesano nos invita también a orar, escucharnos y discernir guiados por el Espíritu Santo. Pidamos al Señor la gracia de renovar nuestro corazón.

Oración

Padre Dios, fuente de esperanza, has enviado a tu Hijo a nuestro encuentro.
Danos un corazón atento y humilde para escuchar su voz;
enséñanos a reconocer con verdad nuestros fallos y a recibir tu perdón.
Renueva nuestra comunidad, guiada por tu Espíritu,
para anunciar la Buena Noticia de Jesucristo y acercarnos a quienes sufren.
Él, que vive y reina por los siglos de los siglos. Amén.

ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN ELKARTEKO OSPAKIZUNA

ABENDUALDIA – JAUNA GURE BIDERA DATOR
Gipuzkoan erromes dabilen Elizbarrutiko
lehen Sinodoaren argitan: "ZUREKIN"

Kantua: Zatoz, Jauna! [Gora Jainkoa 2, 4. or.]

Agurra

Gure bidera ateratzen den Maitasunaren Aita Jainkoa izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

(Elkartea biltzen denean, kandela piztu daiteke. Isilune labur baten ondoren, kantua abesten da.)

Abendualdiko bidean bildu gara. Jauna badator gure bila, eta gure bizitzaren erdian topo egin nahi du gurekin. Gaur, elkarte gisa, haren hitza entzungo dugu eta gure bihotza aztertuko dugu. Ez gatoz beldurrez; Jainkoaren errukian konfiantza izanez baizik.

Hasi berria den Elizbarrutiko Sinodoaren bideak ere otoitzera, elkarri entzutera eta Espiritu Santuak gidatuta bereiztera gonbidatzen gaitu. Eskatu diezaiogun Jaunari gure bihotza berritzeko grazia.

Otoitza

Jainko Aita, itxaropenaren iturri zaren hori,
zure Semea gure bila bidali duzu.
Eman iezaguzu haren ahotsa entzuteko bihotz erne eta apala;
erakuts iezaguzu gure hutsegiteak egia osoz aitortzen eta zure barkamena jasotzen.
Berritu gure elkartea, zure Espirituak gidatuta,
Jesu Kristoren berri pozgarria emateko
eta sufritzen dutenei hurbil egoteko.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Primera lectura
1ª Lectura:
Flp 1, 4-6.8-11: «Así llegaréis limpios e irreprochables al día de Cristo».
Segunda lectura del II Domingo de Adviento, ciclo C.

Salmo responsorial:
Sal 85 [84], 9ab y 10. 11-12. 13-14 (R. Is 35, 4d)
«Nuestro Dios viene en persona a salvarnos».
Lunes de la II semana de Adviento.

Evangelio:
Mt 18, 12-14: «No quiere que se pierda ni uno de estos pequeños».
Martes de la II semana de Adviento.

Lehenengo irakurgaia
1. Irakurgaia:
Flp 1, 4-6.8-11: «Zaudete garbi eta esankizunik gabe Kristoren egunerako!»
Abendualdiko II. igandeko bigarren irakurgaia, C urtekoa.

Erantzun-salmoa:
Sal 85 [84], 9ab eta 10. 11-12. 13-14 (R. Is 35, 4d)
«Horra gure Jainkoa; berbera dator gu salbatzera!»
Abendualdiko II. asteko astelehena.

Ebanjelioa:
Mt 18, 12-14: «Jainkoak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».
Abendualdiko II. asteko asteartea.

Breve homilía

Pablo da gracias a Dios por los Filipenses y confía plenamente en que Dios llevará a término la obra buena que ha comenzado en nosotros. Así abre nuestro corazón a la esperanza: el Señor no nos deja encerrados en nuestros fallos, sino que nos ayuda a renovarnos y crecer. En el sacramento de la Reconciliación dejamos que Dios retome en nosotros esa obra.

Pablo pide que crezcamos en el amor y tengamos conocimiento y sensibilidad para discernir lo mejor y dar frutos de justicia. Recibir el perdón no es solo llegar a una meta; concreta nuestro amor y transforma nuestra conducta. La misericordia de Dios nos envía a vivir con sinceridad, justicia y responsabilidad hacia los demás.

El salmo 85 [84] une la misericordia y la fidelidad de Dios, la justicia y la paz. Dios nos ofrece su paz y nos llama a reconocer la verdad. En la confesión presentamos nuestro pecado al Señor con sinceridad, sin justificarnos. Su perdón reconstruye la paz en nuestro interior y en nuestras relaciones.

En el Evangelio, el pastor sale a buscar a la oveja perdida; el Padre no quiere que se pierda ni uno de los pequeños. Nadie es prescindible ni insignificante para Dios. El Señor nos busca cuando nos alejamos y se alegra cuando volvemos. El sacramento de la Reconciliación es una puerta para regresar a casa y a la comunión de la comunidad.

También en el camino sinodal estamos llamados a escucharnos y a no dejar a nadie atrás. Preguntémonos ante el Señor: ¿a quién de nuestra comunidad estamos dejando de buscar, escuchar o acoger de nuevo? Y sobre nosotros: ¿qué herida o pecado necesitamos poner ante su misericordia? Dios quiere completar en nosotros la obra buena que ha comenzado y nos envía a buscar y acoger a los demás.

Homilia laburra

Senideok, Paulok Filipotarrei idaztean Jainkoari eskerrak ematen dizkio, eta konfiantza osoa du Jainkoak gure baitan hasitakoa onez amaituko duela. Gure bihotza ere itxaropenera irekitzen du: Jaunak ez gaitu gure hutsegiteetan harrapatuta uzten; berritzen eta hazten laguntzen digu. Adiskidetzearen sakramentuan, Jainkoak guregan hasitako lanari berriro heltzen uzten diogu.

Paulok maitasunean haztea eskatzen du, ezagutza eta sen ona izan ditzagun onena bereizteko eta zuzentasunaren fruituak emateko. Barkamena jasotzea ez da helmuga hutsa; gure maitasuna zehaztu eta gure jokabidea aldarazten du. Jainkoaren errukiak besteekin zintzo, zuzen eta arduratsu bizitzera bidaltzen gaitu.

85. salmoak Jainkoaren errukia eta leialtasuna, zuzentasuna eta bakea elkartzen ditu. Jainkoak bakea eskaintzen digu, eta egia aitortzera deitzen gaitu. Aitortzan, geure burua zuritu gabe, gure bekatua egia osoz aurkezten diogu Jaunari. Haren barkamenak bakea berreraikitzen du gure barruan eta harremanetan.

Ebanjelioan, artzainak galdutako ardia bilatzera ateratzen da; Aitak ez du nahi txikietako bat ere galtzea. Inor ez da Jainkoarentzat baztergarria edo hutsala. Jaunak bilatu egiten gaitu aldentzen garenean, eta pozik hartzen gaitu itzultzen garenean. Adiskidetzearen sakramentua etxera eta elkartearen elkartasunera itzultzeko atea da.

Sinodoaren bidean ere, elkarri entzun eta inor atzean ez uztera deituak gaude. Galde diezaiogun Jaunari: nor ari gara elkartean bilatu, entzun edo berriro hartu gabe uzten? Eta geure buruaz: zer zauri edo bekatu jarri behar dugu haren errukiaren aurrean? Jainkoak hasitako obra ona gure baitan osatu nahi du, eta besteak bilatzeko eta jasotzeko bidaltzen gaitu.

Examen de conciencia

Señor, nos ponemos ante ti. Ilumina nuestros ojos para que veamos nuestra vida a la luz de tu amor.

Ante el Señor

- ¿Doy gracias a Dios por el bien que ha hecho en mi vida? ¿Confío en que llevará a término la obra buena que ha comenzado en mí, o miro mis fallos con desesperanza?

En la misión de Jesucristo

- ¿Procuro crecer en el amor? ¿Ayudan mis decisiones y mi conducta a discernir lo mejor y a dar frutos de justicia?

En la comunidad y en la diócesis

- ¿Reconozco mi pecado con sinceridad o busco excusas? ¿Construyo paz y verdad en mi hogar y en mi comunidad?

En las relaciones

- ¿Hay alguien que se haya alejado o haya quedado al margen a quien necesito buscar y escuchar? ¿A quién puedo abrir de nuevo la puerta de nuestra comunidad?

Con quienes sufren

- Al recibir la misericordia de Dios, ¿perdono a los demás y ayudo a sanar las relaciones? ¿He dejado de dar algún paso por la paz?

Ante la renovación

- ¿Vive nuestra comunidad de manera que nadie quede perdido? ¿Escuchamos, compartimos responsabilidades y acogemos con alegría a quienes se acercan de nuevo?

Kontzientzia aztertzeko

Jauna, zure aurrean jartzen gara. Argitu gure begiak, gure bizitza zure maitasunaren argitan ikus dezagun.

Jaunaren aurrean

- Jainkoari eskerrak ematen al dizkiot nire bizitzan egin duen onagatik? Konfiantza al dut nigan hasitako obra ona amaituko duela, edo etsipenez begiratzen diet nire hutsegiteei?

Jesu Kristoren misioan

- Maitasunean hazten saiatzen al naiz? Nire erabaki eta jokabideek onena bereizten eta zuzentasunaren fruituak ematen laguntzen al dute?

Elkartean eta elizbarrutian

- Egiaz aitortzen al dut nire bekatua, edo aitzakiak bilatzen ditut? Bakea eta egia eraikitzen al ditut nire etxean eta elkartean?

Harremanetan

- Ba al dago aldendu den edo bazterrean geratu den norbait bilatu eta entzun behar dudana? Nori ireki diezaioket berriro gure elkarteko atea?

Sufritzen dutenekin

- Jainkoaren errukia jasotzean, barkatzen al diet besteei eta laguntzen al dut harremanak sendatzen? Bakearen aldeko urratsik egin gabe utzi al dut?

Eraberritzearen aurrean

- Gure elkarteak inor galtzen ez uzteko moduan bizi al dira? Entzuten eta erantzukizunak partekatzen al ditugu, eta berriro hurbiltzen direnak pozik hartzen al ditugu?

Reconciliación
Confiando en la misericordia de Dios, reconozcamos nuestro pecado y oremos juntos.
Digamos juntos: Yo confieso…
Señor, muchas veces no hemos escuchado tu voz ni hemos escuchado como debíamos a las personas de nuestra comunidad y de nuestro entorno. No siempre hemos anunciado a Jesucristo, nuestra esperanza. No nos hemos acercado suficientemente a quienes sufren y, a veces, hemos perdido la ocasión de construir paz y fraternidad. Ten misericordia de nosotros y abre caminos nuevos en nuestra vida.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

Confesión
Los fieles se acercan a los sacerdotes para recibir la absolución.
Un canto o una música adecuada puede acompañar este momento.

Adiskidetzea
Jainkoaren errukian konfiantza izanik, aitor dezagun gure bekatua eta elkarrekin egin diezaiogun otoitz.
Esan dezagun batera: Aitortzen diot…
Jauna, askotan ez dugu zure ahotsa entzun, ezta gure elkarteko eta inguruko pertsonena behar bezala entzun ere. Ez dugu beti Jesu Kristo, gure itxaropena, iragarri. Ez gara behar adina hurbildu sufritzen dutenengana, eta batzuetan bakea eta senidetasuna eraikitzeko aukera galdu dugu. Erruki zaitez gutaz eta ireki bide berriak gure bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Aitortza
Fededunak apaizengana hurbilduko dira absoluzioa jasotzeko.
Une honetan kantu edo musika egokia jar daiteke.

Acción de gracias

Dios, en su misericordia, nos ha perdonado y renovado. Démosle gracias y pidámosle la gracia de ser testigos de su paz en nuestra vida cotidiana.

Peticiones

- Para que, guiadas por el Espíritu Santo, nuestras comunidades crezcan en la oración, la escucha y el discernimiento. Roguemos al Señor.
- Para que anunciemos de nuevo y con valentía a Jesucristo, nuestra esperanza, acercándonos especialmente a quienes se han alejado de la fe. Roguemos al Señor.
- Para que en nuestras comunidades escuchemos la voz de todas las personas y cada una pueda ofrecer sus dones y asumir su responsabilidad. Roguemos al Señor.
- Para que nos acerquemos a quienes sufren y trabajemos por la paz, la justicia y la fraternidad en Gipuzkoa. Roguemos al Señor.
- Para que se renueve nuestro corazón, sin miedo a los cambios y cuidando con gratitud lo que hemos recibido de quienes nos precedieron. Roguemos al Señor.
- Para que, con la ayuda de Santa María de Arantzazu y San Ignacio de Loyola, permanezcamos fieles en el camino del Señor. Roguemos al Señor.

Unidos, recemos con la oración que Jesús nos enseñó: Padre nuestro…

Oración

Dios misericordioso, te damos gracias por tu perdón.
Haz que tu Espíritu nos preceda y que Jesucristo camine en medio de nosotros.
Ayúdanos a renovar nuestra comunidad, transmitir la fe a las nuevas generaciones y
estar junto a quienes sufren. Haznos servidores de tu misión.
Por Jesucristo, nuestro Señor.

Eskerrak ematea

Jainkoak bere errukiz barkatu eta berritu gaitu. Eskerrak eman diezazkiogun, eta eska diezaiogun gure eguneroko bizitzan haren bakearen lekuko izateko grazia.

Eskariak

- Espiritu Santuak gidatutako bidea egin dezagun, gure elkarteak otoitzean, entzutean eta bereizketan hazi daitezen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Jesu Kristo, gure itxaropena, berriro eta ausardiaz iragar dezagun, bereziki fedea urrundu zaienengana hurbilduz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure elkarteetan pertsona guztien ahotsa entzun dezagun, eta bakoitzak bere dohaina eta ardura eskaini ahal izan ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Sufritzen dutenengana hurbil gaitezen, eta Gipuzkoan bakearen, justiziaren eta elkartasunaren alde lan egin dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure bihotzak berritu daitezen, aldaketari beldurrik gabe eta aurrekoengandik jaso duguna esker onez zainduz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Arantzazuko Amaren eta Loiolako San Ignazioren laguntzaz, Jaunaren bidean leial jarrai dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Bat egin dezagun Jesusek irakatsi zigun otoitzean: Gure Aita…

Otoitza

Jainko errukiorra, barkatzen esku zabala zarena.

Egizu zure Espirituak aurrea har diezagun eta Jesu Kristo gure artean ibil dadin.Lagun iezaguzu gure elkartea berritzen, fedea belaunaldi berriei transmititzen eta sufritzen dutenen ondoan egoten. Zure misioaren zerbitzari izan gaitezela.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Rito final
El Señor esté con vosotros.
R/. Y con tu espíritu.

Que el Señor dirija nuestros corazones hacia la misericordia de Dios y esperanza de Cristo.
Que vivamos una vida nueva, buscando agradar a Dios en todo.
R/. Amén.

Y la bendición de Dios todopoderoso, Padre, Hijo + y Espíritu Santo, descienda sobre vosotros.
R/. Amén.

Vuestros pecados han sido perdonados. Podéis ir en paz.
R/. Demos gracias a Dios.

Referencia
Esta celebración se ha preparado a partir de los ejes del "Decreto de convocatoria del primer Sínodo Diocesano de la Iglesia que peregrina en Gipuzkoa", firmado por D. Fernando Prado Ayuso, CMF, obispo de San Sebastián el 15 de octubre de 2026.

Bukaerako ohikunea
Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.

Jaunak zuzen ditzala gure bihotzak Jainkoaren errukian
eta Kristoren itxaropenean.
Bizi berri bat goza dezagula, gauza guztietan Jainkoaren atsegin izateko.
R/. Amen.

Eta bedeinka gaitzala Jainko guztiz onak, Aita eta Semeak + eta Espiritu Santuak.
R/. Amen.

Barkatuak daude zuen bekatuak. Zoazte Jaunaren bakean.
R/. Eskerrak Jainkoari.

Erreferentzia
Ospakizun hau 2026ko urriaren 15ean D. Fernando Prado Ayuso, CMF, Donostiako gotzainaren “Gipuzkoan erromes dabilen Elizaren Elizbarrutiko lehen Sinodoa deitzeko dekretua”n jasotako ardatzetan oinarrituta prestatu da.